

# FAMILIAREN AUNDITASUNA

«Gizonarentzat familiak dana edo berraztat ia-dana esan gura dau», diño Juan XXIII'garrenak.

Bene-benetan be familia Jainkoagandiko loai eder bat dogu. Zerutikoa da eta bokatiño bat daroa beregan. Au da: Jainkoaren lei bat bear da familia sortuteko, erlijioso zateko bear dan lez. Orregaitik sendia ezin eiteke edozelan asmatu.

Ladrillua laban letxe, familia da gizonaren personalidadea egosten dan tokia. Bizitzako ezbearretan aterpe zerutikoa. Familia dau gizon zintzoak bāke ta zorion iturri, bere atsedean leku onena.

Gaur famili askotan plako artekatasun bat ikusten da. Kilikola dagoz, gorputz bateko asurrak euren lekutik urtenda balegoz lete.

Danok dakigun lez, aspaldiko urteotan golpe garratzak artu dauz familiak. Eta lore zaar bat lez bera jausten ikusi gura ez badogu, indartu, barristau egin bear dira here zimentuak.

Gaurko bizimodua ezta atzo edo arriñe-gun lakoa. Guraso askok ez dauke gaur euren semetxoekaz egoteko demporarik; ezta euren errenkurea izateko astirik be. Alkarregaz ia batu barik bizi dira. Batzuetan gurasoak izango dira kanpotik; semeak bes-



«Gizonarentzat familiak ia dana esan gura dau»

libru garo larregi dagoz gazteen buruak arintzeko. Ziñeko neska-mutillen gangarke-riak be, olako illuntasun bat ixten dabe gazteen arima barrenean. Eta sarritan nabarmenkeri orrek imitatzen asten dira, euren eta familiaren kalterako. Onek gauza guztiok familiaren batasuna kilikolotu egi-ten dabe. Eta olan familia ezin izan bizit- zako ekaitzetan aterleku, ezta gure bio- tzen bake ta atsedean toki be.

VIII URTEA - N.º 75

URTARRILLA (1) 1961

DEPOSITO LEGAL SS. 1.092-1959

# ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA

teetan. Sarritan bizimodua aurrera atara al izateko seme-alabak be gaztetatik be- rrean asiko jatzuz, askotan derrigorrekoa da- ta. Eta familia olan banatzeak kalteak da- kartzuz.

Gero gaurko espetakulo ta diberziño as- kok ez dantse on asko egi ten gazteeri. Eta

Eta familiak lur jo ezkeru, soziedadeak be lur joko dau, familia daualako bere ofia- rri. Aita Santuak dei bat egi ten deusku: «Familia gordetan alegindu bear gara. An- drazkoak zentzun aundiagaz eta errespon- sabilidade guztiagaz jokatu daiela egin bear onetan.

Zaindu zuur, eta bete eragin legea...»

Eztago familian amaren esana baiño ede- rragorik, bere maia bete eragiten badaki. Andre onaren abotsa, ama eta emazte zin- tzoaren esana, aingeru jagolearen abotsa de- zu familian. Olan zintzo jokaturen daben andreak esan leikez Moisesek il laurretik be- re semeari esan eutsezan berba ederrak: «Zeru eta lurak daukodaz testigu, eriotz eta bizitzako bideak argi erakutsi deutzue- dazala. Artu bizitzako bidea, zuek eta zuen familia bizi izateko, Jainkoa maite izateko eta Beragaz bizi izateko».

Aita Santuak berba saminduekaz esan deusku: «Familiak arerio asko dauko».

Zaindu egin bear dogu familia, indartu arerioen kontra.

Ara or ejenplu ederra Nazareten.



# FAMILI'ko ZORIONA LORTZEKO

*Nork esan dau famili edo senar-emasteen arteko zoriona ezin lortu daitekela? Gatxa dala batzuetan? Egia; baiña ez eziñezkoa. Irakurri egizu artikulu au famili bateko senar edo emaztea bazara eta ikusi zure kondukta zelakoa dan.*

## I—S E N A R R A

Senarrak ziur egon bear dau bere emazteak munduko gizonik onenetakotzat daukala; baiña ez "superhombre" bat legez; beste gizonen erru ta akatsik bakoa.

Gizonak beti emaztearean bearrizanean aurkitzen dala erakutsi bear deutso andreari. Ez deditilla antipatikuk bat biurtu andrearen bearrik ez dauala erakutsiaz. Fabrikatik edo kaletik etxeratzean, gaixorik badago, andreari esan: gaixorik nago, maite! Eta ez bere gizontasunak edo arrokeriak eskatzen deutson lez ixildu. Askotan buruko min bat izango da, ta pastilla bat artu ezkerok kitto. Baiña ez; obe da pastilla ori emaztearen eskuetatik artzea. Olan emaztea pozik geldituko da, senarrari apurtxo bat lagundu deusolako.

## NIK DANA ESATEN DEUTSOT, BAIÑA...

Au esaten ei dabe gaur gizon askotxok. Zuk gauzarik bearrezkoenak eta inportanteenak esaten deutzazuala? Ondo dago. Baiña lengo batean, auzoko lagun batek esanda, zera jakin eban zure andreak, aurreko jaietan pelotan edo musean irabazi zenduala. Ta jakina, onek min emon eutson. Andrea auzokoen bidez bere senarrak zer egiten daben enteratze ori...

Ez esan orrek ez daukala inportantzirik. Ori ezerez bat dala. Zure emaztea arrituta gelditu zan bere lagunaren aurrean, ez baiekian zure gauzen barririk. Ta emazte batek senarraren barririk ez dakiala airtu bearrak... Orain bildurrez dago auzokoak zer pentsauko ete daben: Zuk ezertxo be ez deutzazuala esaten-edo gauzarik inportanteenak be ixildu egiten deutzazuala ta abar...

## NIK ATSEGIN GUZTIAK EGITEN DEUTSADAZ

Ondo dago ori. Baiña zer dinitosu zur atsegin guztiak egiten deutzadaz orrek. Emakume batek sakrifizio aundiak egite dauz senarragaitik. Bear-bearrezko ditauz gauza asko isten dauz. Baiña senar-emasteen arteko uskeri asko ezin dauz itxi.

Gaur soñeko barri bat itxiko dau, biaz eskurziño bat; beste bein armario edo etxe ko tresnaren bat erosi naiko leuke, baiña senarrari larregi ez kargeteagaitik...

Baiña bere gizonaren maite-erakutsi bat Ori, ori ezin deutsu itxi. Zu kanpotik izan zareala-ta, goxo-kajan bat dala. Gaur urteak betetzen dituala ta zu kampanan auzo kitzen zareala zure eskutitz edo tarjetatik txoren bat gura leuke. Orixe, zure maite-erakutsia gura leuke. Ta auxe dozu bere senarra maite dauan emazte batentzat bearrezkoena. Orrexegaitik ezkondu ta zan: bion arteko alkar-maitasunak eraginda.

## BAIÑA ZER GURA DOZU? BERA DABEN ETXEAN AGINTZEN DABENA-TA...

Egia zuk isten deutzazuala gura daben egiten etxean. Baiña onegaz ez konformatzen. Egia da atsegin jakola berea izan deditilla eskatzean eta etxean azkenengo bea; baiña ain otza iruditzen jako ori. Egunero eta bakotxean entzun gura dauz zure baletza. Orduan bai litzakela zorioneko. Ostantzean zera pentsatzen dau: etxe ko tresna bat geiago balitz lez daukoko. Eskatz bazterrean edo gela zaarrean dagoen ormake erlojua zarra lez. Jo daizala orduan gura dituanen. Etxatxu ardura. Eta emazteak ez dau ori gura. Zugaz batean, erakutsi ki gura dauz etxe ko gora-berak.

## TA EZ ESAN, ASPALDI EZKONDUGINAN

Erru aundia da, aspaldi ezkondu zifin ta aztuta lez bizitzea. Onek min aundia emoten dauz emazteari. Gauza asko pentsatuko deutzuz, au be parkatuko deutzuz baiña ez uste aztuko jakonik. Biotza min beratuta, suminkor geldituko jatzu.

(jarraitzeko)

Belokitar Deunoro

# GOSEA


Ekonomi gazetan munduak aurrerapen aundiak egin ei ditu. Au egia da izan. Baña egi tristea da beste auxe be: 30 milloi persona ilten dirala urtero munduan gosez. Arin leiduten da! Gizon bakotzak 2.500 kalori bear ditu egunero, eta au bizitzeko bakarrrik. Baña naziño askok nundik atera? Nueba Zalanda 3.380 be baditu. U.S.A.ak be 3.160 inguru. Baña begiratu Indiara: 1.590 bakarrik.

100 milloitik gora il ziran Txinan gosez XIX gizaldian. Gaur 630 milloi personatik

ten dira karroak gabaz ildako ume eta zaarrak batzen, gosez ildakoak. Koreako gerra ostean be 100.000 umetik gora eiebiltzen an jiraka txakur gosedunak lez.

Suramerikan, Amazonia aldean eztabe iñoiz jan okelarik, ez esnerik, ez gaztarik, ez arrautzarik, ez ortukorik. Iuka deritzaion frutu orren uruna besterik eztabe jaten. Eta mineral apur bat artzeko lurra jaten dabe apur bat erre ondoren.

Brasilen bertan be barragarri dabiltz. Ba Sertao errian 100etik 50 il ebazan goseak



Ogetamar milloi gosez ilten, eta beste batzuk milloika tonelada jateko itxasondora botaten.

gora daukoz, eta orretatik 500 milloi gosez eta bear daben beste jan barik bizi dira, eta olan euren bizitza guztian.

Indian 500.000 ausotik gora dagoz kondizio orretan. Eurretatik askok alde egin da be erri aundiegoetara biar apur baten bila euren tripea zeozelan beteteko. Pentsaizu Kalkuta erria millo bitik bostera pasa dala. Baña errietako bizitza ezta zarritan asko ohea. Kanpoan bizi dira, nai euria izan nai eguzkia. Goizero goizero pasa-

1.848 urtean *Eta* apur bat gerotxoago erri bat 224.000 personatik 56.000ra bajatu zan. Danak goseak il da.

Bolibian baserritar askok eztauke karro bat be. Etze edo txabola bakotzak iru edo lau area lur daukoz. *Eta* bizitzeko gitxinez 70 bear dira.

*Eta* Afrikan? Afrikatar gixajoak! Kenian Kikuyuen artean ikaragarritzko astakeriak egin ebezen Mau-Mau zantarrak. Askok

7garren orrira



# DAKAR ALDETIK

Gogorik aundienagaz urte genduan Dakar-retik Freetownerantz. Iru eguneko bideta. Gau ta egun egorazka.

Freetown, gure ames lekua, Bermeo-ko arraintzaleen pozgarria! Axe zan gure portu printzipala. Antxe bizi zan Mister Tasso, arraiña eroten euskun kompañia amerikanoaren errepresentantea. Antxe atondu euskuzan berak ezin obeto gauza guztiak. Antxe guretzako moilla barria, antxe edur fabrika igazkoa baiño aundiagoa, antxe barkuentzako loa bana, frailleentzako etxea, gaioxentzako hospitalxua, danontzako *Stella Maris* edo arraintzaleen soziedadea. Ango itxasoa beti hare, anga aizea beti bigun, anga atuna beti ugari.

Pentsamentu onekaz urten genduan Dakar-retik Freetownerantz, illuntze a'an, San Frantzisko Xabier-koaren vesperan.

## Dana aldrebes

Freetown-en ez genduan ezer aurkitu. Moilla barria egiten bai, baiña noiz amaituteko? Edur makiña aduanan bai, baiña noiz jardunean ipinteko? Fraillen etxea ta hospitalxua oraindiño amaitu barik. Loien eta «soziedadearen» arrastorik be ez. Dana aurkitu genduan iruntzitara, dana igaz baiño txarrago. A zan gure turdimentua, gure amesak ere ez tuta, gure ilusiñoak puztuta, gure poz guztia bapeztuta ikusi genduan! A gure desesperaziñoa, zazpi barku alkarren ondoan ainbeste agunean moillearen kontra atrakatuta, arraiña deskargetako

eta edurra artzeko txandeari begira, neveretako atuna ustelduten, eta zortzi eguneko mare eder bat bape egin barik galtzen! Ikarrea makala gurea, egokera ain illunarean aurrean, geure artean okasiñorik eta arrakuntzarik sortuko ez ete dan, Madrilliko agintariak gugaitik zer esango ete daben, zer Bermeo-ko erriak, zer Bizkai guztiak!

## Frailleak

Fraille biontzako-bere, dana izan zan difikultadea, dana istualdia. Gu biok, erriangaruteko asmoagaz joan gintzazan Freetownera. Desembarkatu giñean, atara genduzan gure trastu guztiak, sartu ginduezan Sierra Leona-ko immigrante listan, ikusi genduan gure amaitu bako etxetxua, eta konformatu giñean bertan zelan edo alan sei illabetean biziteko, arraintzaleen egokera negargarria ikusi ezkerokoan, biotza odola eriole eukiarren.

Baiña laster etorri zan gogorreana. Mediku titulurik ez eukola ta, Sanidadeko agintariak galerazo egin eutsoen frai Alberto-ri legorrean gaixoak osatuten; eta aduanatik medikamentuak atarateko, kondiziñotzat ipiñi eutsoen, eurokaz Sierra Leona-tik kampa urtetea. Gero jakin genduan, dana arreglatuko zala, Mister Tasso bizkorrago ibilli bazan. Freetown-en ez egoan guretzako zeregiñik. Artu genduzan zori oneko medikamentuak eta trastu guztiak, eta berrero itxasora *Poeta Ercilla* untzian.

## GABON GABA ITXASOAN

Santo Tomas egunean urten genduan Freetown-etik, gaueko amarrak inguruzan. Sekulako luzeenak egin jakuzan bertan pasaturiko bederatzi egunak, berreun ta oge-

tamar kintal atun deskargetako eta amabost tonelada edur artzeko benetan larregiak. Gero ta gero be, urten genduan kartzela aretatik.

Barku bat bakarrik itxi genduan bertan: *Galerna*. Guk baiño egun bat geiago egin bearko eban portuan; eta oraindiño beranduago libratuko zan, bere aurreko barkua —Butron— Guinea-ko Errepublikare edur billa joan ez bazan.

«Agur Freetown, zorigaiztoko portua, gure ames guztien iltokia! Gu ba-goaz itxasora, zugandik asago, Gabon gaua pasatzerara.» Eta egia esateko, ondo igaro genduan.

Gau atan, *Poeta Ercilla* ta *Butron* alkarren vistan egon giñean biok. Illuntzean, afaria asi orduko, radiotik verba egin neutsen. eta gogora ekarri zer zan Gabon gaua eta zelan ospatu bear genduan.


Verbalditxu arek zerikusi aparteko bat eukon nigaz. Momentu atan, verba egiten nengoan bitartean, gaueko zazpi t'erdietan, berrogetasei urte kumplidu nituan. Fraille batentzako, urtebetete eguna, examiña egu-

na izaten da, damu eguna eta Jaungoikoa gero ta obeto servietan asteko momentua. «Ai nire Aita San Frantziskoa, lagundu eistazu fraille on bat izaten!»

Itzaldia amaitu zaneko, dana egoan listo afaria asteko: gordearrainakaz egiñiko maiea —beste egunetan maiea barik jaten dogu—, jearlekuak, toldapeko argiak, altavoza ta abar. Asi zan afaria: esparraguak zenbatgura, makaillana piperrakaz, okela zati ederrak saltzan, flan aundi bana, Alicante-ko turroia, kafea, puroa ta kopea. Afari erdian gengoza, *Butron*-eko batela etorri jakun kostadura, eta Konakry-tik ekarritako piña eder batzuk erregalatu euskuezan. Au dok bai arraintzaleen arteko anaitasuna! «Eskerrik asko, Butron, eta afariak zeueribere ondo egin deizuelat!»

Ondo bai ondo igaro genduan Gabon gaua: humore onean bakean, santzoka, kantaka, barreka, itxaso erdian, Sierra Leona ta Liberia-ren arteko kantil ertzcan.

AITA IMANOL BERRIATUA



## ATZERA BEGIRA

1960

EUROPA: ERREGINA

Ezen izan dabe bere batzar nagusia munduko «lau aundiak». Gure lur zati onetan egin dabe jauntxo orrek zintz. Baiña, norbaitek agiñetako miña eukala-ta, ortxe gelditu zan Batzar Nagusia: Ezetan. Gero, ixillean joan gara: Berlin'eko auzia; Arge- lia, Frantzi'ko zaldarria; Ingalterra'n bi- loozia, bere koloniak galdu ezkeru, ta bere jaun-itxurea galtzen; Rusia'ren ga- rrazi zoroak eta gudarako alegiñak, bil-

Joan jaku urte oso bat. 1960 igaro da. Bitartean, Gizaldia nondik ibilli da? Aurre- ra joan al da, edo tente ete dago bere uts eta akatsetan? Begirune bat emon deiogun igaro dan urteari.

durgarriak; Alemania, lanean ixil eta aunditasuna barrero eskuratzen; España...

## ASIA: ARROZA ORITZEN

China'ko 600 milloi giza-seme, India'ko 400 milloi, Japon'go 90 milloi biztanle... Zenbat dira Asia'n bierra zaletzen dagozanak, bizi-lekua aurkitzen zoratzen diranak, zoriona ta norbearen errespetoa nai dabena! Milla ta milloi! Gizonak dira, gu lakoak; seme-alabak ditue, guk legez... Ta injuztisiz eiota dagoz, itz utsez argalduta! Baiña, bide orretan diñardurik, erri orreek laister izango ei dira mundu-buruak. Esate baterako, India, astiro baiña iraupen sendoakin eskolak eta lantokiak jasoten ari da, bere gizasemeak lana ta ikasia euki daien; China komunista: gizonaren eskubide guztiak zapalduta be ta bakoitzaren gurariak aztuta be, ortxe ei dago prest ostikoka asteko edozeiñegaz, Rusia beragaz be...; Formosa, Filipinas...

## AFRIKA: SUTAN IRIKITEN

Esan leike igazko urtean Afrika'ko azia izan dogula bereziena. Garagarrillan Congo'k bere askatasuna artu ondoren, ordundik ona Afrika izan dogun gogamen eta berbeta guztien arloa. Ondo dakigu Congo'n gertatu dana: illak eta gorrotoak asko, ta... beste zerbait. Afrika'ko giza-kumeak baltzak izanarren, zuriak baizen gizonak dira; gure antzeko izate aundi bat daukoe, ta sarri euren anima gurea baiño zuriagoa ta garbiagoa da (kanpotik «OMO»-gaz ondo garbituta egonarren). Ondo ulertu, aitu, bear dogu egi ori; buru barruan sartu bear dogu eta biotz-sakonean erabilli.

Afrika'ko lurraldearen, kontinentearen, batasuna lortu aurretik bertako nazionalidade txikiak formatu bear dira. Afrika'ri ezin deusagu eskatu guri gizaldiak kostau jakun arazoa, oraindiño gaur be bete barik daukogun arazoa. Ba-daukoz Afrika'k zer-esan asko guretzat, eta guk asko ikasi daikegu Afrika'n.

## AMERIKA: ATSEGIN-LEKU GALDUA

Amerika zer deritsogu? Problema zer erreboluziñoz egindako itxaso bat diradi Ego-Amerika. Justizi ta lasaitasun egarri ase-ezin bat dauko lango jendeak. Fidel Castro'k bere Nazioan egin dauana, Amerika Latina'n. «Fidelismo» suaren garrak alderdi guztiak izeten asi dira. Dana dala, auxe da egia: Amerika asko ta askora eldu daiteke, jendea ta lurra bai dauz. Baiña nora joko dau?

Bertan dago Ipar-Amerika, EE. UU., «aingurzko» zintzotasunez beterik, «askatasunaren zaindaritzat»... Zer? Cuba'k luzatu deutson zigorragaz zeozer ixartuko zala deritxot. Zerbait ikasi bear dau oraindiño. Eztakie Ipar-amerikanoak zelan jardun auzokoakaz. Diru larregi emoten deuskulako, edo diru ondoren kalteko eskabideak susmatzen diralako, edo gaiztakeriz, Ipar-Amerika lagun barik geratzen asi da: «semeak» iges joakoz. Egia au da.

Orain Kennedy da bertako presidentea. Onegaz politika barri baten zai gagoz. Ez aztu, Kennedy gurea, dirua ta gudarako indarren aurrean gizona dagoala.

## O. N. U.: BABEL TORRIA

Lur onetako izkuntza guztiak poxporo kaja baten. Zapatak mai gaiñean, abertzale berbatxoak, urrez betetako zilbota lodiak...


O. N. U.'n dana dago ondo, baiña alant da guztiz be jarraitu daijala, naziñoen batasunerako erabilli daitela.

Orrela doa mundua. Aurrera beti. Batzuk diñoz emengoa amaitu dala, eztagoala zer. egiñik, biziteko lekua gitxitu dala, jeneria eskaz dabillega. Al Baiña es aztu. Europa ta Asia, Afrika ta Amerika'ren Jautgoikoari eskatu daiogun aurtengo urtea urte baketsua izan daiteala. Ta nork daki bai! Igual Everest tontorrean «Koka-Kola» frebika bat jasoten da ta orduan... listo! Denok pozik!

Pello Mari anaia

# Bertso barriak

Basilio Pujanak jarriak



Andra Fabiola, asko poztuta  
Zure ezkontzaren barriak,  
Sakonetikan agurtzen zaitu  
Biotzez Euskalerrriak.  
Bere barruko poza artuta  
Diñotsu bertsolariak,  
Opa deusula bide zuzena  
Ta zorion ugariak.

Jaiotzaz zara birtutearen  
Itxaso baten jausia;  
Zorioneko emakume bat  
Argitasunez azia.  
Zure gaiñera jatzi da orain  
Errege baten grazia,  
Maitasun eta apaltasunen  
Birtutez irabazia.

Mundu onetan jatorriz dogu  
Atsekabe ta samiña;  
Au gozotzeko ezta naikoa,  
Mundutarren alegiña.  
Erreguz gagoz, Zerutik lagun  
Izan dagizun Birjiña;  
Bere laguntzaz izan zaitez  
Benetako erregeiña.

Beljika sarri isuri dozu  
Negar malko ta odola;  
Emakume au izan daitela  
Zure Aingeru Jagola.  
Birtute utsa artua dozu  
Erregintzat Fabiola,  
Izarra legez dizdiratsu ta  
Maitasuna dariola.

Kriston aginduz Apostaluak  
Egin ebien antzera;  
Errege jauna ikasten doia  
Erdera eta euskera.  
Eta ori da uda aldean  
Etorteko Zarautzera.  
Zuek artzeko pozez gagoz ta  
Etorri zeuen etxera.

## 2'garren orritik dator

iges egin bear izan eben toki seguruagoeta-  
ra ezertxo be barik. 45.000 gizon ostu ebe-  
zen astokillo zantar ereek eta andre kui-  
tadu areek montoian eta edozelan bizi di-  
ra orain.

Aljerian bertan be 50 % bear dan beste  
barik bizi dira. Euren lurrik onenak euro-  
putarren eskueatn dagoz eta onek badakie  
zer erein! kanpora, estranjerira bialdu li-  
tekezen gauzak: ardaia, tabakua eta abar.  
Bien bitartean bertakoak aoa bete agina-  
kin geratzen dira.

Marruekoson be urteroko erretea 3.500  
fr. batiatik 2.500-ra bajatu da.

Tunezen bedarra jaten dabe.

Europar berton be obeto egonarren ez-  
ta falta gosea Grezian obreru askok egu-  
nean bein bakarrik jaten dabe. Iru milloki

italianu miseri gorrian bizi dira. 25 % fa-  
mili olantxe bizi dira; eta Napolesen 80.000  
inguru olantxe bizi dira.

Espanian bertan be Beljikan lez bizitze-  
ko obreru bakotzak amasei ordu igaro bear-  
ko leukez biarrean. European gitxi gora be-  
ra milletik bost bizi dira miserian, au da,  
Parisen 25.000 eta Londresen 35.000, eta au  
eskekoak kontatu barik.

Au ikusita zer egiten dabe aberats as-  
kok? Noiz ikasiko ete dabe Kristoren le-  
gea? Onean ikasi nai ezpadabe txarrean  
ikasi bearko dabe, eta ezta izango asko  
obe. Komunismoaren arnasa artzen da ia  
urrean leko askotan, eta ezta arritzekoa  
be.

Jaungoikoak edegi daizela aberats orreen  
begiak.

Antonio Zubizarreta



## 1960'ko AMAR ESKANDALOAK

Milla bederatzireun eta irurogeigarren urtean, kristiñauri eta gizaldi guztiari lotsa emon bear leuskiguen eskandalu onexek pasau dira:

1) **JUDIOENGANAKO GORROTOA.** Mundu onetan areriorik geien daukozan erria, Jaunaren erria, Israel erria da. Au eskandalu bat da. Baña eskandalu audienea Kristo gorrotokeri onen oñarri lez artzea da. Pio XI Aita Santuak esaten deuskunez Kristogan eta Kristogaitik arimaz judioak bai gara.

2) **NUKLEAR ARMEKIN EGINDAKO PRUEBAK.** Nagasakin, 1945 urtean kixkaldua izan zan errian, buru bako neskatillatxo bat jaido da. Esaten dabenez bere gurasoak bomba atomikoaren ondorenak jota gelditu ziran. Eta diñonez gaurko nuklear bonbak bi edo iru milloi ume ikaragarrizko akatz eta gaitzekin jaioteko ondorena eidaroeie. Eta Pauling jakintsuak diñonez, prueba bakotxak amar milla bat gizon leuzemi edo odoleko biziak jota ixten eidauz. Alan da guztiz be, biotz bageko gizon orrek orrelako gizadi-iltea jarraitzeko errazoi itxurak topatzen dabez.

3) **BALTZEGANAKO GORROTOA.** Baltzak, beste gizon danak lez, daukezen eskubideak munduko parte askotan oinperatuak izan dira, zuriengandik baztertutak eta begi txarrez begiratuak. Gaur egun Eliz Ama Santaren laguntza besterik eztauke. Baña gatx au bikotia izan da. Baltzaganako gorroto onek, baltzen partetik zurienganako gorrotoa sortu dau. Eta or daukagu Kongon ejemplo bizia. Baltzak, baltzak izanaren gizonak dira, gorputza eta anima bat daukezen gizonak, eta zuriak lez euren eskubideak daukezen gizonak. Eta gizonak diranez, guk errespetatu eta maitatu egin bear doguzan Jaungoikoaren semeak.

4) **ELEIZARENGANAKO PERSEKUZINOA.** Rusia eta bere menpeko nazioetan persekuzio au agirian eta garbi dago. Eta beste toki batzuetan Eleiz Amak bere fedea eta erakuspenak agirian ipinten dituanean illunpetik egiten deuten persekuzio ezta zarritan ohea.

5) **ZIGORRA.** Gizadiaren lotsakeri onek 1960 urtean be belarriondoko bat emon dautso Jaungoikoari; Eta edozein gauzagaitik, pentsatzen dan gauza bat agertzen dalako edo partidu artakoa dalako. Eta zigortzen dan gizon bakotxean Kristo odolestuten eta iltzen da.

6) **PARISKO BATZARRAREN ONDAPENA.** Naiko eskandalu an be. Euren lepoan ikaragarrizko eginbearra daroen gizonak, "aundiak", amaseigarren gisaldiko gudariak lez ibilli dira. Onetaz gainera, gure Krustxef jaunak bere betiko lotsabagekeriari beste lotsabagekeri bat erantsi dautso, nabarmenkerizko diplomazia.

7) **ARGELIA.** Auxe alperriko guda negarria; Arjeli gixajoa pizti biren atzamarretan burkitzen da. "Ultrak" alde batetik eta Sartreak bestetik euren gogai aldrebekakin euren nazioaren saltzelleari "kementsu eta biotzdunak" deituz.

8) **KOLONIALISMOA.** Kolonialismo au ontzat artu leike egizko laguntza dan bitartean. Baña erri bat bere nortasuna ezagutzera elduten danean eta bakarrik bizitzeko aiña danean nagusitasun onek eztauko onik. Onek eztan esan na nazio askoren anti-kolonialismoa oba danik. Au beste era bateko kolonialismoa da, eta anti-kolonialistak dirala esanarren erria gorrotora eta ondamenera bialtzen dabe.

9) **ZINEKO IZARRAK GURTZEA.** Nunba eztago munduan garrantzi audiagoko gauzarik (ainbeste eta ainbeste errebista eta periodiko orriak euren bizitza zikiñakin) Eztakit zergaitik ainbeste berba euren eskontza eta eskontza-ate teagatik, euren semeenganako ardurabakotasun gaitik, euren erropa eta kutunkeriagaitik! Euzakiña, ori besterik ikusten ez dan lez, milioi gizon eta batez be andrak, bizitza orrek artatzen dabez eredutzat. Eta errebista askok onelan beteten dabez euren kutzak.

10) **GOSEA.** Gosea, gosea, gosea. — Gaurko problemarik audienea, eskandalorik negarria, na, ainbestek parra-parra daukeen bitartean, milioi loka gion euren tripea poztutzeko ezertxorik be gae.